

3.-NAFARROA ARDATZA

1936'KO GUDA EUSKADI'n

(Berazategi-Domingez)

Matxinada Iruña'n izan zan gertatua. Ara ekarri eban Afrika'tik erkalak Emilio Mola, Afrika'ko militarrekaz alkartu ez eitean.

Mola militar ontzat egoan eta ardura aundiak be euki ebazan, batez be monarkiaren aldian, baiña erkalaren buru zan Azaña ez eban maite.

1936n. urteko sanfermiñen inguruan ebiltzan joan-etorriak ustiatuta, errez izan jaken matxin-zaleai batzarak Iruña'n egitea eta matxinada bera gertatzea.

Beste alde batetik, Nafarroa'n nagusi ziran karlistak, urduri egozan orduko agintariak kendu-arte, batez be Eleizearen aurka ebiltzala ikusten ebelako. Nafarroa'n eskoitarrak % 70 ziran.

Errez ulertzen da ba, Nafarroa'n besteak zapalduak izatea eta matxinzaleak nagusi agertzea.

Baiña ez egozan oso-osoan Mola'ren alde. Calvo Sotelo erail ebenean alkartu jakozan Mola'ri. Varela artu eben lagun gudarostea gertatzeko eta izkilluak be aurkitu ebezan.

Nafarroa'ko erreketen buru Jaime del Burgo izan zan. Onen semea da gaur aldun dan Jaime Ignazio.

Erreketek oneik 12 000 boluntario lortu ebezan eta Gipuzkoa'ra, Logroño'ra ta Soria'ra zabaldu ziran. Madrid'era be urreratu ziran, an matxinzaleak txarto ebiltzalako, baiña ez eben ezer lortu oraingoz.


Eta beste %30 zer ziran eta zer egiten eben? Oneik geienak Iruña-aldekoak eta Erriberakoak ziran, ezkertiarren aldekoak eta abertzaleak. Jakiña da gero Erribera'n zapalkuntza negargarria izan zan. 2500 erail ebezan.

Nagusi urten eban, ba, matxina-da'n Nafarroa'n eta Mola gizon aundia zan matxinoen artean.

Gudaren sua agertu zan Afrika'n, baiña ez ain ziur. Barruko urietan, Madrid'en batez be, ez ebelako irabazi.

Uztaillaren 18'tik aurrera Mola'ren izarra illuntzen doa, batez be Gipuzkoa'n eta Bizkaia'n aurrera egitea lortu ez ebalako.

Franco ez zan matxino izan asieran, baiña lan aundia egiten eban gudaren egoaldean eta gogorkeri ikaragarritz jabetu zan Andaluziaz, Extremadura'z eta Ego-Kastela'ren zati batatz. Zemendirako Madrid'en egoan Franco. Bere gudariak ondamendia izan eben, baiña gogor jarraitu eban.



Erreketen buru zan Jaime del Burgo, iru izardun txapelagaz dagoana (gaurkoa'ren aita)

1937'ko bagillaren 3n. egunean, Bilbao eskuratu bagerik, Mola il egin zan egazkiñeko istripu bategaitik. Franco geratu zan nagusi, maltzurragoa ta gauzak neur-tzen ohea zalako.

Batzuk esan dabe Franco'k erail ebala Mola egazkiñeko istripua berak gertatuta. Ori ez dakigu. Baiña bai Mola politika-arloan ilda egoala.

OLAZAR'tar Martin'ek

TXAPELKETA

1
Ogeitasei urtekin,
ori da ixtoria:
kaiolan ere aurtan
duzu irabaztia,
zure aitak ondotik
deika animatzia,
orreri kasu egin
ori da ikastia.

2
Berregun eta ogeita amairu
jokatutakoak,
amarretik sei dira
irabazitakoak.
Ez dira oiek izango
zure azkenekoak,
aurrera olaxe segi
nere desioak.

3
Partidua gogorra
bai zen biontzako,
Barriola ikusi nun
bildurra artzeko,
ogeita bana berdin,
bestea egitteko
suerteza izan duzu
ori irabazteko.

4
Txapel ori gordetea
toki berexian,
maite izan dezazu
zure bizitz au,
izardiakin ziñan
buruan jartzean,
kontu au esateko
urrengo urtian,

LUZIA GOÑI'k
Atano Pilota-lekuan 2006-12-27